

CPV: 'rap'-a eta hitz gogorrak, gazteen erreakzioa sustatzeko

Madrilgo taldeak kontzertua eskainiko du gaur Donostian

Andoni Urbistondo / Donostia

CPV Espainiako rap talde ezagunenetakoa kontzertua eskainiko du gaur Donostian. Lau disko ditu CPV taldeak, eta gazteriari zuzendutako gizarte gaiak ditu hiz-

pide hitz gogorren bitartez. Plato bi eta binilo diskoak dira taldearen euskarriak. Ez dute musika tresnarik erabiltzen. Erri- ma eta musika gazteriaren erreakzioa sustatzeko erabiltzen dituela esan zuen aurkezpenean Meswy kideak.



EDURNE KOCH

Ezkerretik eskuinera, Jairo managerra, eta Meswy eta Paco, CPV taldeko kideak.

DONOSTIAKO Egia auzoko kultur etxean, iluntzeko 20:00etan, izango da CPV (Club de los Poetas Violentos) rap taldearen kontzertua. Sarrera 1.000 pezetan izango da (40 libera). CPV Torrejon de Ardoz hiriko taldea (Madril) 1992an sortu zen, Madril eta inguruko auzoetan hainbat raper elkartu ostean. Ordudanik lau disko kaleratu dituzte: *Madrid Zona Bruta* (1994), *Y ahora que* (1996), *La saga continúa* (1997) eta *Grandes planes* (1998). Azken disko horretan Mucho Muchacho, Dompachino, Kultama eta Tio Tonton artisten laguntza izan dute.

Donostiako Udaleko Musika Bulegoak gidatutako Gazteszena programaren bitartez antolatu den bigarren kontzertua da. Urtarrilaren 27an Urban Species Ingalaterrako

taldek eskaini zuen kontzertua.

CPVk rap doinuak eta erri- ma erabiltzen ditu gai soziale- tan oinarritutako abestiak egiteko. «Eguneroko bizitzan gazteriak dituen arazoak salatzeko xedea dugu», esan zuen Meswy taldekideak, eta abestietako hitzak oso oldar- korrak direla baieztatu zuen. «Abesti hauekin gazteriaren erreakzioa lortu nahi dut», esan zuen Meswyk. «Gazteek informazio piloa jasotzen du- te, eta nik, mikrofono baten aurrean, milaka gaztek ni entzuteko duten aukeraz baliatu nahi dut gure mezua jakinarazteko. Erantzukizun hori neure gain hartzeko prest na- go», adierazi zuen.

Supernafamacho, Mr. Ran- go, Kamikaze, Paco, Meswy eta Jotamayuscula DJak osa- tzen dute CPV. Izen bitxi ho- rren jatorria honako hau da

Meswyren esanetan: «Kluba raper-ek osatzen dugun talde bat garelako; poetak, ba hala garelako, eta bortitzak, izaera bortitza, autodefentsan oi- narritutakoa dugulako.

Bi plato, binilo diskoak eta inprobisazioa

CPVk bi plato, binilo diskoak eta errima bakarrik erabil- tzen ditu kontzertuetan. Ez dute bestelako musika tres- narik jotzen.

Zuzenean ehun kontzertu baino gehiago eskaini dituzte jada, eta Meswyren esanetan, guztiak «ezberdinak» izan di- ra. «Inprobisazioa handia da, ez dugu ezer aurreikusita. Kontzertuan bertan erabaki- tzen dugu zer egin eta zer ez.» CPVko kidearen arabera, gaurko kontzertuaren helbu- rua «jendeak oihu eta salto egitea, ondo pasatzea da».

Machauten obra bat jaso du Cantusek disko batean

■ *'Le jugement du roi de Navarre' da lanaren izena*

Europa Press / Iruñea

GUILLAUME DE MACHAUT poeta eta musikariaren obra bat jasotzen duen *Le jugement du roi de Navarre* (Nafarroako erregearen epaiketa) diskoa aurkeztu zuen atzo Iruñean, Cantus etxeak. Cantuseko zuzen- dari eta ekoizle Jose Carlos Cabelloren hitzetan, «XIV. mendeko Europako olerkari eta musikari ezagun eta ospetsuena izan zen Machaut».

Diskoak, zehazki, bi gaz- teren arteko amodioari bu- ruz, edo, hobeki erranda, bi gazte horien arteko amo- diozko istorio gatazkatsuari buruz Nafarroako errege Karlos II.a Gaiztoari eskatu- tako sententziaren ingu-

ruan poetak idatzitako pieza jasotzen du. Nafarroako erregeak zera erabaki behar zuen: norena zen samini- k handiena, maitalea hil zi- tzaion emakumearena, edo, aldiz, neska-lagunak trai- zionatu zuen gizonarena.

Erregearen epaia aitzai- kiatzat hartuta, eta kon- tuan hartuta Machauten olerkiak ez zuela musikarik, Cantus disketxeko ekoizle- ek istorio bat osatu dute poetaren gidoitik abiatuta, eta musika instrumentala gehitu diote. Olerkia bi zati- tan dago banatuta: batetik, izurri beltzaren ondorioak deskribatzen eta Machau- tek heriotza islatzeko idatzi musika jasotzen duena, eta bestetik, epaiketaren berri ematen duena.

Musikari gazteen emanaldiak Deustuko Unibertsitatean

■ *Gaur Ainhua Barredo organo jolea ariko da*

Erredakzioa / Donostia

SEIGARREN urtez jarraian, euskal musikari gazteen kontzertu sorta bat antola- tu du Deustuko Unibertsita- teak, BBKren babesare- kin. Etorkizun handiko musikariak ezagutzera ematea da Deustuko Uni- bertsitatean egiten diren jardunaldion helburua. Egi- taraua gaur hasiko da, Ain- hoa Barredo organo joleare- kin.

Ainhua Barredok solfeo, piano eta organoko goi titu- luak eskuratu zituen Bilbo- ko Juan Crisostomo Arriaga kontserbatorioan. Halaber, karrera amaierako Sari Berezia irabazi zuen. Biz- kaiko Diputazioak emanda- ko hiru urteko beka bati esker, Baionako Kontserba- torioan jarraitu zituen ikas- ketak Barredok. Antzinako musikak erakarrita, klabe- zina ikasteari ekin zion Donostiako Kontserbatorio- an. Iaz ohorezko matrikula

lortu zuen. Maisu ospe- tsuen ondoan jo du Ainhua Barredok. Iaz Bilboko Abes- batzaren orkestra lagundu zuen Frantzian zehar egin- dako biran.

Guztira sei kontzertuk osatuko dute Deustu Uni- bertsitateak antolatutako zikloa. Ainhua Barredore- naren ondoren, Teresa Merino eta Ana Ayneto bikoteak gitarra kontzertua eskainiko du hilaren 23an. Martxoaren 2an J.M. Ibarra eta Pedro Gandia gazteek klabe eta biolin kontzertua emango dute, eta martxoaren 16an flauta eta piano emanaldia entzuteko para- da izango da, Mikel Piris eta Maria Vegaren eskutik. Martxoaren 23an lau esku- tara egindako piano saioa emango dute Arrate Monas- teriok eta Maria Vegak. Azkenik, Marta G. de Ubieta eta Itziar Barredoren ahots eta pianoko saioak itxiko du egitaraua, martxoaren 30ean.